

TTAKUN (H)ERRENKA

Hilkutxa hutsak

E

españoles: Fraga... ha muerto". Ironiarekin esaten dut, baina ez da egia. Pentsatu, ez sinestu! Bizirik dirau oraindik. Francok dirauen bezala. 1966. urtean AEBetako enbaxadorearekin batera Palomaresen egin zuen bainuak hilezkortasunaren erdia eman zion Manuel Fragari. Arma nuklearrak kutsatutako bainuarekin batera, Fragari benetako hilezkortasunaren beste erdia "demokraziak" eman dio. Fragak, 1997an, Xuntako presidente kargua enegarren aldiz hartu zuenean, 5.000 gaita-jotzaileen doinuaz lagunduta egin zuen, Konpostelako Santiago hiriko Obradoiro plazan. Bertan da Santiagoko katedrala, Santiagorako erromesentzako helmuga. Konpostelako Done Jakue katedraleko botafumeiroak, erromesen mezatan eta bestelako ekitaldi garrantzitsuetan katedralaren nabe batetik bestera ibiltzen den intsentsu-ontzi erraldoiak alegia, jatorri xumea eta, batez ere, praktikoa du. Santiagorako erromesaldia benetako bide bihurtu eta milaka erromes erakartzen hasi zenean, katedralean hainbeste pertsona biltzeak usain txarra sortzen zuen. Horixe bera egin du "demokraziak" Manuel Fraga Iribarnerekin, botafumeiroaren lana, haren "espíritu liberalari" zerion usain txarra kendu arte arindu eta estali. "Hiltzaileak zintzoak balira bezala gelditzen badira eta fanatikoak heroï gisa, hemen jende guztiak nahi izango du fanatiko edo terrorista izan", Basagoitik Bilduri zuzendu zizkion hitzekin akordatu naiz. Euskadiko PPko presidentearen esanetan "Fragari esker, Espainiak hobera egin zuen eta ultra gutxiago daude". Aznarrek nabarmendu du Fraga patriota eta estatu-gizona zela. Rubalcabak esan du "zerbitzari publiko aparta" zela, eta "arazo askori" konponbidea eman ziela.

CONCETTA PROBANZA



Jose Luis Padrón



Sarasola



Apaolaza

Ba oso ondo. Fragak ibilbide akademikoa, profesionala eta politikoa egiteko denbora nahikoa izan zuen, diktaduraren aurka borrokatu ziren milaka pertsonen ez zuten halako denbora-eperik izan. Fragak Espainiako trantsizioan "giltzarri" izateko aukera izan zuen, diktaduraren aurka borrokatu

ziren milaka pertsonen ez zuten halako ahalbiderik izan. Fragak etxeko ohean lasai asko hiltzeko suertea izan du, diktaduraren aurka borrokatu ziren milaka pertsonen ez zuten halako suerterik izan. Milaka pertsonen ez zuten Fragak izan zituen denbora, aukerak, suertea eta eskubideak izan, Standard&Poor's kalifikazio agentziak herrialdeen kreditu kalifikazioa AAA mailatik BB mailara jaisten duen hala moduan, Frankismoan Fragak eta bere "gaita-jotzaileek" diktaduraren aurka borrokatu ziren milaka eta milaka gizon eta emakume gizaki mailatik subespezie baten maila bat baino behe-rago utzi zituztelako. "Hilkutxan ez zegoen inolako arrasto biologikorik", Legezko Medikuntzaren EAEko Institutuko zuzendari Carlos Cuberok baieztatu zuen haur lapurtuen kasuen harira Donostiako Polloe hilerrian ireki zuten hilkutxan ez zela sekula gorpuzkinik egon. Azken egunetan, epai-

leen aginduz, hiru hilkutxa ireki dituzte. Gure demokrazia jaioberria lapurtu izanaren susmoa genuen, eta familiek epaitegietan horiek irekitzea eskatuta dute. Susmoa egia bihurtzen ari da. Hiru hilkutxetan emaitza bera izan da: hutsak zeuden, ez zegoen demokraziaren arrastorik. Nik susmo hori beti izan dut, ez zela ezer azalduko hilkutxetan, Fraga bezalako sendagileak, emaginak, anestesistak, apai-zak, mojak, erizainak eta lur-emaelek historia lapurtu egin zituztelako. ■



Gure demokrazia jaioberria lapurtu izanaren susmoa genuen, eta familiek epaitegietan horiek irekitzea eskatu dute.

Susmoa egia bihurtzen ari da.

Hiru hilkutxetan emaitza bera izan da: hutsak zeuden, ez zegoen

demokraziaren arrastorik